



Lide Marquet eta Beñat Badiola Aieteko jai batzordeko kideak, jaietako zapiarekin.

Iaz moduan, aurten ere garagardo propioa izango dute Aieteko jaietan

Kurtso hasierarekin batera, badatoz Aieteko jaiak. Aurreko urtean egun bat gehitu zioten egitarauari eta, izandako emaitza ona ikusita, horrela mantenduko dute: ostegunean hasiko dira jaiak.

📷 Maddi Viana

Aieteko jaiak indarrez datoz berriro ere, bi asteburutan banatutako egitarauarekin. Iaz, egun bat gehitu zioten egitarauari, eta, ondorioz, jaiak ostegunean hasi ziren, ostiralean beharrean. Ostiralean egiten zituzten hainbat jarduera ostegunera pasatuz, iaz lasaiago ibili zirela adierazi dute jai batzordeko kide Beñat Badiolak eta Lide Marquetek.

Hain zuzen ere, ostiralean izan ohi dira kontzertu potenteenak eta jai batzordea larriago ibiltzen zen denboraz, «hasi eta berehala topera ginen» azaldu du Marquetek. Pila-tuago zeuden jarduerak banatuago egiteak jai hasiera arinagoa izatea ekarri zuen. Horregatik erabaki dute horrela mantentzea; beraz, aurten, ostegunean, hilak 10, izango da Aieteko jaietako txupinazoa.

Iaz arrakasta ederra izan zuen beste berrikuntza bat ere egon zen: garagardo propioa. Ale den-denak saldu zituzten eta aurten errepikatzea erabaki dute. Aurtengo garagardoak IPA ukitu handiagoa izango duela adierazi du Badiolak, eta botilaren etiketa desberdina izango dela azaldu du, hala, aurreko urteko botila edo etiketa gorde zuenak bilduma hasi dezake.

«Gertutasun horrek laguntzen du giro segurua izan dadin»

Auzo giroan

Aurreko urtean egindako beste berrikuntza bat eraso matxisten aurkako protokoloa izan zen. Aurten boluntarioekin ere landuko dute, txosna txandagoenak protokoloa ezagutu dezan. Hala ere, jai batzordeko kideek nabarmendu dute jai eremua txikia denez, barran dagoenak dena ikusten duela. Gainera, bertan ibiltzen diren gehienak auzokoak direla ere aipatu dute: «Gertutasun horrek laguntzen du giro segurua izan dadin».

Auzokoak dituzte Zumbonak ere, Marquet bera taldearen parte da, eta ostegunerako umeentzako saioa prestatu dute espresuki. Ohikoagoa baino motzagoa izango da, baina ez da taldeak egingo duen saio bakarra, larunbatean ere ibiliko dira eta, ohiko saioarekin.

Berritasun gehiago ere egongo dira aurten. Bigarren asteburuan, pilota eta bertsoak elkartzeko dituzte Miramongo frontoian eta kamisetak ere egin dituzte. Larunbateko bazkari-ko tiketa erosten duenak, jaietako kamiseta opari izango du. Bazkaria jaietako kamisetaz bete auzoteko gogoz dagoela aitortu du bikoteak.

Larunbata izaten da auzotarrentzat egun potentea. Bazkariak gain, poteo musikatu ere egiten dute auzoan barrena, Badiolak gogoak dituela aipatu du. Ilordeak buruan, auzoa musikaz beteko dute gazteek. ●

LARUNBATA 5

10:00

II. Aiete Cup, Jolastokin.

OSTEGUNA 10

16:30

Toka eta igel txapelketa, Topalekun.

17:00

Txiki-Txoko, Jolastokin.

18:30

Pintxo-pote, Jolastokin.

20:00

Brindisa eta jaien hasiera, Jolastokin.

20:30

Zumbonak gazteenentzat, Jolastokin.

21:30

Bravi&Oli.

23:00

Amaierako *mangerazoa*.

OSTIRALA 11

16:30

Petanka eta txintxon txapelketa, Topalekun.

17:00

Txirikorda tailerra, Noa ile apaindegian.

17:30

Krisark akademiaren tailerra, Hiru Damatxon.

18:30

Askaria, Hiru Damatxon.
Auzo kalejira, Hiru Damatxotik abiatuta.

20:45

Zezensuzkoa, Munton.

21:00

Kontzertuak, Jolastokin: Zeatikez, Treverb eta Ahantzi.

01:00

Sokasalto herrikoia.

LARUNBATA 12

11:00

Aieteko IV. Kross Txikia, Aieteko parkean.

12:00

Sabel dantza tailerra, Jolastokin.
Paella lehiaketa, Jolastokin.

14:30

Herri bazkaria, Jolastokin.

16:00

Bingoa, Jolastokin.

16:30

Mojito lehiaketa.

17:00

Aieteko danborrada.

17:15

Entzierro txikia, Aieteko parkean.

18:00

Coro Easo Txiki eta musika instrumentu tailerra, Munton.

19:00

Poteo musikatua, Jolastokitik abiatuta.

20:00

Txiki festa eta karaokea, Jolastokin.

23:00

Zumbonak, Jolastokin.

00:00

DJ-ak, Jolastokin.

IGANDEA 13

11:00

Estropadak pantaila handian, Jolastokin.

12:30

VII. Patata Tortilla Txapelketa, Jolastokin.

13:00

Meza Nagusia eta luntxa. Gurutzeaga parrokiako abesbatzaren emanaldia.

13:30

Tortilla txapelketako sari banaketa eta auzo komertzioen oparien zozketa, Jolastokin.

19:00

Kanpai hotsak, parrokian.



Ondo pasa jaietan!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66





ASTELEHENA 14

14:00

Jubilatuen bazkaria. Musika eta dantza.

OSTEGUNA 17

19:00

Easo Txiki eta Eskolania abesbatzak, Katxolan.

OSTIRALA 18

16:30

Tute txapelketa, Topalekun.

16:45

Haur jolasak eta zumba tailerra, Hiru Damatxon.

17:00

12-17 urtekoentzat jolasak, ur jarduerak eta tailerrak, Munton.

18:00

Xibaketa (xiba txapelketa), Hiru Damatxon.

19:00

Ur entzierroa, Hiru Damatxon.

19:15

Apar festa, Hiru Damatxon.

LARUNBATA 19

09:00

III. Padel Txapelketa, kiroldegian.

11:00

Aieteko III. Kilometro Bertikala, parkean.

3Txulo txaranga auzoa girotzen.

Matxain VIII. Bolo Txapelketa, Jolastokin.

13:00

Toka txapelketa, Jolastokin.

16:00

Mus txapelketa, Topalekun.

18:00

Kale antzerkia, Otxanda plazan:
*Superheroia*k.

Bertso-pilota, Miramongo frontoian.

Pilotariak: Urmeneta-Ortiz de Urbina vs Artetxe-Aranguren.

Bertsolariak: Jon Altuna eta Manex Mujika.

Erromeria Katxolan: zizka-mizkak, Ezeiza ahizpak, mutxikoak...

IGANDEA 20

10:30

Diana Udal Txistulariekin, auzoan zehar.

11:00

Kantu jira eta bertsolariak, auzoan zehar.

14:30

Herri bazkaria, Topalekun.

ASTELEHENA 21

20:00

Gospel Donosti Abesbatza, parrokian (100. urteurrena).